

2009KO MAIATZAK 12

12 DE MAYO DE 2009

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZ OHIKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO MAIATZAK 12

DIA: 12 DE MAYO DE 2.009

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Pilar ETXABE IRIONDO
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Cristina FORCADA UNANUE.
Manuel ZUBIA ARTABE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Paloma HEREDERO NEGREDO
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

IDAZKARIA: JON GIL BELTZA,
SECRETARIO ACCTAL.

Alkate jaunak bilera eratutzat
ematen du.

Se da por constituida la sesión
por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon, ezohiko pleno honi ekingo diogu gaur, maiatzak hamabi, asteartea, aurrenengo... eguneko aztergaiko aurrenengo puntuarekin, Pertsonala

I.- UDALEKO LANPOSTU ZERRENDAREN ZUZENKETA.- Andoni pertsonal buru bezala,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.- Arratsaldeon, azkenengo pertsonaleko batzordean diktaminatu zen gai hau, bere garaian RPTa edo... onartu genuenean aurrekontuekin batera, oraindik zehaztu gabe zeuden gai batzuk, zehazten joan gara ordutik hona eta zehaztasun horiek zuzenketa batzuk egitea eskatzen dute. Ludotekako langileek edukiko dituzten lan baldintzen inguruan eduki behar duten maila desberdinen inguruan eta eskatu behar zaizkien perfil eta formakuntzaren inguruan, lanketa hortan Hezkuntzako Departamentua ibili da Diputazioaren eskutik; baseak edo oinarriak idatziak dituzte jada, eta oinarri horietatik ondorioztatu diren lan baldintzak orain ba.. RPT-ra pasatzea da hona ekartzen duguna; bere garaian estimazio bat edo egin zen lanpostu horiek zer nolako mailak eta zer nolako kopuruak beharko zituzketen eta hori azterketa sakonago bat egin ondoren aldatu beharra daukagula ondorioztatu dugu eta bere garaian diktaminatu genuen batzordean eta hori da hemen ekartzen duguna, diktaminatu behar dena da:

“ Haur Teknikari Laguntzaile lanpostua C1 taldean atxikitzea (**aurreko lanpostuen zerrendan C2 taldea azaltzen da**), plaza bat %100eko lanaldira eta 12 mailarekin (gaur egun udalean indarrean dauden ordainsarien mailen arabera) (**aurreko lanpostuen zerrendan 11 maila azaltzen da**) eta eskatutako titulazioa: Gizarte eta Kultur zerbitzuen arloko Goi Mailakoa (**aurreko lanpostuen zerrendan Eskola Graduatua azaltzen da**). “

Hurrengo aldaketak, hurrengo postuan egin beharreko aldaketak izango liratezke:

“Ludotekako Hezitzaile lanpostua C2 taldean atxikitzea, eta bi plaza %50eko lanaldira (**aurreko lanpostuen zerrendan -hau akats bat izango zen- %100ean agertzen ziren**) eta 9. mailan azaldu beharko liratezke (gaur egun udalean indarrean dauden ordainsarien mailen arabera) eta eskatutako

titulazioa: Eskola Graduatua eta Aisialdirako Begirale Titulua **(aurreko lanpostuen zerrendan Eskola Graduatua aldatzen da).**”

Aldaketa hauek egiteko beharra ikusi da, zuzenketa bezala ere bideratzeko aukera egon zitekeen, baino nahiago izan dugu Plenora ekarri eta diktaminatu ondoren Plenoak bere garaian RPT-a onartu zuen bezala, aldaketa hauek ere plenotikan ekarri nahi izan ditugu.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV-k?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, Lanpostuen zerrendari ezezko botua eman genion ekarri zenean plenora udal aurrekontuekin batera, eta ezezko horren arrazoi berdinarengatik gaurkoan ere ezezkoan jarraitzen dugu.

Ez gaudelako ados orokorrean udal honek daraman langile kontratazioaren politikarekin, askotan adierazi izan dugu oso arriskutsua iruditzen zaigula egiten ari den aurrengo kapitulu horren haunditze nonbait etengabekoa eta kasu konkretu honetan eta Ludotekako langileetaz ari garelarik are eta gehiago ez baidugu udal bakar bat ezagutzen inon horrelako zerbitzu bat plantilako langileen bitartez ematen duenik.

Guk udal ardurak genituenean zerbitzua eman bai, baina gure ustetan udalarentzat, herriarentzat eta beraz herritarrentzat onena izan den edo den formula horren bitartez ematea erabaki genuen eta orduko arrazoi berdinak eramaten gaitu orain ezezko botua ematera.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PSOE?

SR.EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: No sé, no dudando en cuanto a que sea necesario o no, una vez que se determina por vuestra parte como responsable de la gestión municipal de la nueva política en cuanto a la contratación y demás de personas en este ayuntamiento, pues la verdad, no vemos digamoslo así el hecho de tener que decir sí o nó a ésto, puesto que si... si como tal se vé que es necesario hacer esos cambios, la política es ésa, podemos estar en contra de la política de puestos de trabajo, pero no en sí en los cambios éstos, por lo tanto nos vamos a abstener y vamos a dejarlo ahí.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezker-Batua Aralar?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Sin más, se trata de cambios técnicos, sin ningún problema aprobamos el dictamen, se aprobó en la Comisión,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Talde mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Guk, gure botuaren zentzua adierazteaz aparte ere neurri batean, erantzun txiki bat eman nahiko genuke, esaten da ba.. orain artean eman den zerbitzua modu egokian eman dela eta zerbitzu hori antolatzeke modua egokiena dela, normala da hori esatea, orain arte horrela antolatu dutenek esaten dutela eta normala izango da ba... antolakuntza hori aldatu behar dugunok ba... kontrakoa esatea.

Gure ustetan erakunde publikoek zerbitzu bat ematen dutenean ikuspegi desberdinetatik zerbitzu hori kalitatezkoa izatea bermatu beharko dute.

Alde batetik bermatu beharreko kalitatea da herritarrei ematen zaien zerbitzua, eta zerbitzu horregatik zerbitzu horretara bideratzen diren diru kopuruak ere zaindu beharko dira, baino baita ere zerbitzu hori emateko sortzen diren lanpostuak eta lan baldintzak ere bermatu behar dira eta orain artean horiei kasu gutxi egin zaie zeren ikusi besterik ez dago orain artean langileek zeinen lan baldintzak kaxkarrak eduki izan dituzten.

Eta lan baldintzak oso kaxkarrak zirela irudikatzeko lanpostu horietan zeuden pertsona guztiak emakumezkoak zirela esatearekin, nik usten dut, ia guztia esanda dagoela, zeren herri honetan zoritxarrez, prekaritatea ba.. emakumearen itxura hartzen du emakumezkoa da, eta orain dela gutxi, aurkeztu edo informatu den diagnostikoak hala ondorioeztatzen du edo hala adierazten du argi eta garbi.

Herri honetan hogeitahamar ordutako kontratua baino gutxiago duten pertsonak %83a emakumezkoak dira, herri hontan zortzirehun € baino gutxiago kobratzen duten pertsonak % 83an emakumezkoak dira eta lanpostu honen definizioa horixe bera da, hogeitahamar ordu baino gutxiagoko kontratuak eta zortzirehun euro baino gutxiago kobratzen zuten pertsonak dira, eta gure ustetan zerbitzua kalitatezkoa izan behar du baino zerbitzu horrek herritarrei bakarrik ez, langileei ere zerbitzu batzuk eskeini behar dizkie eta bizi kalitate minimo bat, nik usten dut, bermatu behar dela baita ere. Eta horregatik esan genuen bezala eta gure programan ere horrela agertzen delako, okerren edo lan baldintza kaxkarrenak dauden zerbitzuetatik hasita, ba... pixkanaka pixkanaka beste lan baldintza batzuk sortzen saiatuko gara eta hau lehendabiziko urrats bat izan daiteke eta beste urrats batzuk jada ere eman dira eta emango dira eta nola ez, honen alde bozkatuko dugu, guk ere.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Guk, gure aldetik, Gobernu Batzorde bezala egindako proposamena nola den ez naiz gehiegi luzatuko eta besterik gabe babesten dugu proposamena, PNV-k?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Esan da bezala, ezezko botua, oso diskurtso polita da Andoni Etxaniz-ek erabili duena, lan baldintza duinak eta emakumeen lan prekarietateak etbr... aipatu ditu, eta gauza guzti horiek, egia da, badirela, baina guk beti defendatu izan dugu udalaren ekonomia, ekonomia publikoa, diru publikoarekin egiten den lana eta iharduera izanik edozein, gutako edozein etxeko dirukontuak baino askozez kontu haundiagoa behar izaten dutela eta gure ustetan udala batez ere da herritarrei zerbitzu horiek ordaintzen dituzten herritar guztiei zerbitzuak, ahal den zerbitzu gehien eta ahal den kalitate haundieneko zerbitzuak emateko erakunde bat eta neurri bat, zein beste neurri bat, zein beste erabaki bat eta hartzen diren erabakia guztiak norabide berdintsuan joan da, ba... behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, gure ustez udala epe labur batean ba... oso kezagarria izan daitekeen egoera batetan jartzeko arrisku latzetan ikusten dugu eta guk ez dugu bat egin nahi horrelako politikekin, ezezkoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bateren batek, azken txanda honetan, Emiliano? Ezerrez; Kristinak? Ezerrez; Andonik?

ANDONI ETXANIZ OSA.: Batzordean, nahiko luze eta zabal hitzegin dugu zerbitzu berriaren antolakuntzak zer nolako onurak ekarriko zituen eta nik usten dut, printzipioz bertan hitzegin eta diktaminatua dagoenez, nere ustez, nahikoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Beraz, bozkatzera pasako gara, PNV-k?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ezezkoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezezko botua, PSOE-k?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Abstención

ALKATE-LEHENDAKARIA: Abstentzioa, Ezker-Batua Aralarrek?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa eta EA-k ere aldekoa,

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

Aldeko botuak: 5 botu (2 Talde Mistoak; 2 EA; 1 EB-Berdeak/Aralar)

Aurkako botuak: 4 (EAJ-PNV)
Abstentzioak: 1 (PSOE)

Votos a favor: 5 votos (2 Talde Mistoak; 2 EA; 1 EB-Berdeak/Aralar)

Votos en contra: 4 (EAJ-PNV)
Abstenciones: 1 (PSOE)

LEHENENGOA: UDALEKO LANPOSTU ZERRENDAREN ZUZENKETA ONARTZEA.

PRIMERO: APROBAR LA MODIFICACION DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO

Bigarren puntua; Hirigintzako saila

2008.12.09KO ALKATETZA-EBAZPENAREN AURKA DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 3. EPAITEGIAN JARRITAKO ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA.-

Babes Ofizialeko etxebizitzaren inguruko Alkatetza ebazpen bati jarri zaion kontentziosoa izan da eta Jon Gilen iritziz eta gaur zorionez eman daukagunez berari emango diot hitza, Plenotik pasa behar duen esplikazio bat denez, besterik gabe eta berak egunerokotasunean gainean dagoen gai bat denez, berari emango diot hitza, hobeto esplikatu dezan zertan oinarritzen den errekurtsua

JON GIL; IDAZKARIAK.: Arratsaldeon, badakizuenez babes ofizialeko etxebizitzaren prozeduran hasierako oinarri batzuk onartu ziren ekainaren 16an usten dut, eta oinarri horiek konplementatu egin ziren

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu, ze etxe, konkretuki?

JON GIL; IDAZKARIAK.: Bai, ekainaren 16an onartu ziren Oikia eta Ardantzabideko promozioetarako oinarriak.

Oinarri horien konplementua, oinarriak konplementatu egin ziren abenduan, zozketa egin ere egin zen eta abenduaren hamabostean helegite.., reposiziozko helegi bat jaso zuen udaletxeak, txostena ezezkoa izan zen eta horrela erantzun zitzairen eta Eva-Rakel Saez Udabek helegite bat aurkeztu egin du administrazioarekiko Donostiako bigarren, ez hirugarren auzitegian, orduan Alkatetza Dekretuz onartu egin da espedientearen igorpena Auzitegira, interesatuei orain notifikatu egin behar zaie eta datorren astean hasiko gara notifikazioak egiten eta udal osora informatu behar izan da, horregatik izan da nere partehartzea.

Asuntua pixka bat laburtzeagatik, Eva-Rakel Saez Udabek, bere senarra eta bere familiak ez zituen betetzen baldintza ekonomikoak, baldintza ekonomikotik gora pasatzen ziren eta beraiek helegite hortan esaten zuten araudi berriaren ondorioz, ez zutela baldintza horiek... bueno, baldintza horien barne zeudela, guzti hau Eusko Jaurlaritzako abokatuekin hitzegin ondoren, beraien gomendioa ezezkoa esatea, esan zidaten ematea izan zela eta horrela egin zen hirigintzako sailaren txostenaren ondorioz eta hori reposiziozko helegitea ondoren txostena ezezkoa izan zen, Dekretuz onartu egin zen eta momentu honetan helegitearen aurkezpena egin dute auzitegietan eta espedientea bidali ondoren hogeit eguneko epea izango dute ba... demanda ondo prestatzeko eta aurkezteko,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Besterik gabe, ez dakit, norbaitek zerbaite galdetu nahi baldin badu,

M. EUGENIA ARRIZABALA OLAIZOLA AND.: Kuriositatez, besterik ez baldin bada, ezarri ziren baldintza ekonomikoetatik gora geratzen zen unitate familiarra zen kasu honetan, eta zergatik usten dute ba... arrazoia beraien alde dutelako, ze erreglamendu edo ze ordenantzetan oinarritzen dira horretarako?

JON GIL; IDAZKARIAK.: Bai onartu ziren oinarrietan, ekaineko oinarrietan agertzen zen zeintzuk ziren oinarri minimo, bueno, oinarri ekonomiko minimo eta maximoak, maximoa 33 mila eurotan zegoen finkatuta. Maximo hori 35 mila euroetara pasa izan da araudi berri batekin iraila ondoan, irailaren hamabostean usten dut onartu zela orden hori, baina badauka xede transitorio bat esanaz ez dela aplikatzen maximo hori, hasierako... bueno, oinarriak onartuak dituzten prozeduretan; hori izan da helegiteari ezezkoa emateko arrazoia eta gure ustetan hori da... eta Eusko Jaurlaritzako abokatuaren ustetan ba.. ezezkoa eman behar zitzaien bai udalaren partetik edo bai Eusko Jaurlaritzaren partetik, kontratua sinatu ondoren, gure iritzia hirigintzako sailakoa izan zen ba... ezezkoa izatea,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Eso significa ahora, algún tipo de problema en cuanto al proceso de la entrega de vivienda, me refiero, si hay que paralizarla todo o solo afectaría a la vivienda en sí el parón, y las demás puesto que no hay ningún tipo de problema podrían hacer uso cuando dé lugar y demás,

JON GIL; IDAZKARIAK: (Euskaraz edo erderaz egin behar dut) En el escrito de... en el recurso potestativo de reposición no se solicitó la suspensión de la eficacia del acto administrativo y en la interposición del recurso en el anuncio del recurso tampoco lo han solicitado; por lo cual, los actos administrativos son ejecutivos, sigue siendo ejecutivo y no se ha solicitado por ninguna parte que no lo sea

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, beste norbaitek ez badauka ezer esatekorik, hirugarren puntura pasako gara Gizarte Ongizatea
FAMILIAKO KIDEREN BAT E.A.E. KANPOKO ESPETXEREN BATEAN DUTEN PERTSONENTZAT 2009. URTERAKO GARRAIORAKO DIRULAGUNTZAK ONARTZEA.

Hau dakizuten bezala aurreko urtean dagoeneko martxan jarri zen dirulaguntzen oinarri bat da. Oinarri horiek 2008an egindako berdina dira eta 2009ko otsailaren hiruan batzordean berriz ere eztabaidatu ziren ea aldaketaren bat merezi zuten 2008ko oinarrien gainetik. Ez da inongo aldaketarik izan eta Liobaren edo Idazkariaren xedapenari jarraituz Gobernu Batzordetik pasa beharrean dakarkigu Plenora, izan ere bere ustez dirulaguntza guztien oinarriak plenotik pasa beharreko gaiak direlako.

Horrela apirilaren 21eko batzordearen irizpenaren arabera, gaur hona dakarkigu ba... aprobazioa ba... horixe dirulaguntzen oinarriak, nahi baduzute irakurriko dut irizpena, irizpenaren arabera:

1.- Hasierako onarpena ematea 2009. urterako Familiako kideren bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko espetxeren batean duten pertsonentzat, edo EAE-tik kanpoko epaitegietara auzipetu gisa joan beharra duten zumaiarrentzat proposamenari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua arabera, udaleko iragarki taulan eta GAO n argitaratu hogeitamar egunetan zehar egin beharko da.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

1.-Aprobar provisionalmente las Ayudas Económicas Individuales de Transporte para Familiares de Personas Internas en Centros Penitenciarios fuera de la Comunidad Autónoma, o para aquellas Personas Zumaianas que deban de acudir en calidad de encausados a juzgados sites fuera de la C.A.V. para el año 2009 y exponer al público en el tablón de anuncios y en el BOG durante 30 días, de acuerdo con el artículo 16 de la NF 11/1989 de 5 de julio Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

2.- Finalizado el período de exposición pública, el Pleno de la Corporación resolverá las alegaciones que se hubieran presentado y adoptará el acuerdo definitivo y si no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo provisional.

3.- El texto íntegro del acuerdo definitivo deberá de ser publicado en el BOG sin que entre en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.

Gogoratu nahi dut, aurreko urteko oinarrien arabera kasu bat izan genuela aurkeztu zena, kasu bakar bat izan zen, zegoen partida osotik orain ez naiz ondo akordatzeko, baino ez zen partida osoa gastatu eta bueno ba...aurten ikusiko dugu ze eskaera dauden, norbaitek zerbait, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, joan den urtean Gobernu Batzordetik pasa zen kontu bat izan da, ezer gutxi esateko aukerarik izan genuen honi buruz, aurreko urteetan gu agintean Ezker Abertzaleak urtero egindako eskaera izaten zen, presoen famili artekoei dirulaguntzak emateko, oinarrien onartzea eta gure erantzuna izaten zen Eusko Jaurlaritzatik bideratzen zirenez dirulaguntza horiek, bide egokia hori ikusten genuela.

Egia da oraingo hontan eta Eusko Jaurlaritzan Gobernu berria egon da, dirudienez da iragarri dutenaren arabera, hemendik aurrera ez omen dute horrelako dirulaguntzarik emango, alderdi hortatik ba... alderdi politiko bezala edo talde politiko bezala ados gaude presoen famili artekoei dirulaguntza horiei ematearekin, dispertsioak preso beraiekiko ezezik beraien inguruko jendeari eragiten dizkion galerak eta bestelako kalteak kontutan hartuta, baina hori esan da orain aurkezten zaigun dirulaguntzak emateko oinarri hauetan bi konzeptu desberdin nahasten dira:

Alde batetik presoen familikoentzat dirulaguntzat, baina baita ere Erkidego Autonomotik kanpoko epaitegietara auzipetu gisa joan beharra duten Zumaiarrentzat dirulaguntzak.

Eta bigarrenko konzeptu honekin ez gaude ados, ez dugu uste guri dagokigunik horrelako dirulaguntzak ematerik eta nahiko zalantzazko kasuak gerta daitezke konzeptu horren barruan dirulaguntzak emateko horretan, biak lotuta elkarrekin lotuta aurkezten zaizkigunez, ba... ezingo dugu baietzko boturik eman eta gero galdetuko didazu berriz ere, baina edozein modura iragartzen dut gure ezezko botua.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PSOE?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Entre otras cosas mucho más importantes que ésta, no cabe la menor duda, estaba el no, por nuestra parte a los presupuestos de este año como en otras ocasiones esta partida siempre ha sido digamos aunque hoy se haya querido de alguna manera cambiar de nombre ó camuflar algún tipo de posibilidades de que va dirigido a un amplio espectro cosa que hasta ahora no ha sido así, no sé si este viaje lo será pero realmente nunca ha sido así, siempre ha sido destinado a lo que ha sido destinado, siempre hemos estado en contra de ello y por lo tanto seguimos manteniendo el estar en contra de ello.

Que el Gobierno Vasco ha dado el paso que ha dado ahora en este momento, pues bien, una de las cosas en las cuales nosotros siempre hemos estado en ello, tanto antes de estar que ahora, y por lo tanto ahora ya se ha dado el paso definitivo y veremos a ver como depende de una actuación ya

que no solamente va a depender del Gobierno Vasco o de nosotros, sino de la propia Administración de Justicia, si en un momento determinado consideran que tienen que seguir adelante seguirán, y si realmente dicen que no pues se cortarán y listo pero vamos en principio, con nuestro voto no van a contar.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Talde mistoa?, Ez; Kristinak? Ezerrez. Talde mistoak.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Guk nola ez, aldeko bozka emango dugu, baino bi konzeptu desberdin dira EAJ-ren aldetik eta nere ustez bi konzeptu hauen oinarria berbera da, funtsean. Azken finean Audientzia Nazionala desagertu behar dela ez dugu guk bakarrik esaten beste batzuri ere entzun izan diegu makrosumarioak ere aberrazio juridiko bat eta politiko bat direla ere esaten beste batzuri ere entzun diegu, hilabetetan eta hilabetetan egunero Madrilen deklaratu behar izatea ba... ia kondena bat dela ere behin baino gehiago entzun izan dugu, epaituak izan aurretik eta ez dakit zer nolako, ez dakit, gauza guzti horiek esan ondoren, hala ere orain ba... Audientzi Nazionalera eramaten direnak, hemen bertan epaituak izan beharko liratezkeen herritarrak eta epaituak izan ondoren, nahiz eta guk Espainiako Justizian ba.. konfiantza batere ez daukagun epaituak izan ondoren ikusiko litzateke epaila bera, baino epaila berak eman beharko luke epaituari kondena eta ez kondena aurretik eta Madrileraino joan behar izatea epaitua izatera, epaitu aurretik ia kondena bat da, bere hortan eta kondena hori epaitu gabe dagoen pertsona bati aplikatzearen kontra, usten dut behin baino gehiagotan zuen alderditik ere salatua izan dela, orain hori diruz laguntzea ondo ez dagoela esatea aurretik ba.. makrosumario eta Audientzia Nazionalen kontra hitzegin eta gero, nik behintzat ez dut ulertzen, ez dakit, hori argudioa baldin bada baiezko bozka batetik ezezko batetara joateko, eta bitarte horretan mugimendu guzti hori ematen denean, baita ere Madrileraino joan behar izatearen arrazoiaren kontra hitzegitea, niri behintzat ulergaitza egiten zait, baina bueno bakoitzak oso librea da bere argudioak eta bere bozkak defendatzeko, baino neri behintzat rekorrido asko iruditzen zait zentzu batetik bestera eta beste foro batzuetan eta beste komunikabide aurretan egoera konkretu batzuren aurrean eta egoera konkretu horiek babestu nahi ditu gaur hona ekarri dugun testu hau ba... kontraesan bat ikusten dut, nik, neuk, behintzat baino funtsean konzeptua berdina da Madrileraino, edo Badajozera, edo Sevillara edo Parisera Euskal Herritarrak eramaten dituzte Euskal Herrian egin beharko liratezkeen gauzak egiteko eta hori da ekidin, ekidin edo neurri batean ba... hori

pairatzen duten pertsoneri ba... ekonomikoki sortzen zaizkien kalteei aurre egiteko aukera ematea da azkenean honen helburua, gero ba.. epaiak ematen duena beste kontu bat da, baino epaituak izan aurretik ia kondenatuak dira,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, nik bi gauza. Lehendabizi aurreko urtean ez bezala aurten eztabaidatzeko aukera daukagula, ez da egia, aurreko urtean batzordean oinarri hauek eztabaidatu ziren, beste gauza bat da aprobazioa Gobernu Batzordetik eraman zela Udal Plenora ekarri ordez. Eta bigarren, aurten ere oinarri hauek eztabaidatuak izan dira eta galdetua izan da ea oinarri hauek merezi zuten aurreko urteko oinarriekin alderatuz horrelako aldaketarik eta inork batzordean ez zuen aipatu, adibidez, gaur hemen PNV-k aipatu duen berezitasun hori.

Bigarren PSOE-k dio presoak zein motatakoak diren ba... pixkat kamuflatu bezala egin dela, hain zuzen ere hori batzordean 2008. urtean eztabaidatutako zerbait izan zen eta gure aldetik behintzat garbi geratu zen edozein motatako presoentzako zuzendutako dirulaguntzak izango zirela. Bueno, hori agerian jarri genuen eta nik usten dut honekin jarri nahi dena dirulaguntza hauek zuzendutako pertsoneri agerian jarri nahi dena da, hain zuzen ere, hori, edozein pertsoneri, edozein presori zuzendutako –preso mota batekoak edo bestekoak izan- zuzendutako dirulaguntzak direla, baino ia eztabaidatuta dagoelako 2008. urteko dirulaguntzetan, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA.: Bai, Pleno honetan, joan den urtean ez genuela aukerik izan, esan dut, inolako baloraziozko juiziorik ez dut egin datu horren gainean, eta bestalde Andonik zenbait gauza ez ditu ondo ulertzen, edo ez ditu ulertzen, eta bueno nik ere badaukat detailtxo bat eta galdetuko nioke, zer dela eta tituluan izenburuan jartzen den edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko epaitegietara auzipetu gisa joan beharra duten Zumaiarrentzat eta ez duen zuzen-zuzenean jartzen edo Audientzi Nazionalera auzipetu gisa joan beharra duten Zumaiarrentzat,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PSOE? Ezerrez; Ezker-Batua Aralar? Ezerrez; Talde mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Eta hori horrela jarriko balu, onartuko litzateke?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bakarrik galdetu egiten dizut, zergatik ez den horrela jartzen,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ikusiko dugu, aktan ze jartzen duen, eta zer esan duzun, baino oker ulertu ez baldin badut izan da, nola aurten Plenotik pasatzen den zerbait den, aurten bai eztabaidatzeko aukera daukagu, ikusiko dugu, nik horrela ulertu dudanez, horregatik erantzun dizut horrela, zerbait gehiago esateko?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ez, ez dudala inolako baloraziorik egin eta gure ezezko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezezko botua, PSOE?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: En contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ezezko botua, Ezker-Batua Aralar?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde-mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta EA-k ere aldeko botua, Pentsatzen dut bost eta bost daudenez berriz errepikatu behar dela, denok dakigu nola bukatuko den, baina bueno... PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ezezko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezezko botua, PSOE?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: En contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ezezko botua, Ezker-Batua Aralar?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND...: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde-mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta guk ere aldeko botua,
Nola dagoen enpatea alkateak dio Aldeko Botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 5 botu (1
EB-Berdeak/Aralar; 2 Talde
Mistoa; 2 EA

Aurkako botuak: 5 (4 PNV-
EAJ; 1 PSE-PSOE)

Abstentzioak: 0

Azaroak 28ko 2568/1986 ED-ko
100,2 atalean ezarririkoarekin bat
bigarren bozketa egiten da
berdinketa hausteko,

Aldeko botuak: 5 botu (1
EB-Berdeak/Aralar; 2 Talde
Mistoa; 2 EA

Aurkako botuak: 5 (4 PNV-
EAJ; 1 PSE-PSOE)

Abstentzioak: 0

Berdinketak irauten duenez,
Lehendakariaren kalitate botuak
erabakitzen du:

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 5 (1 EB-
Berdeak/Aralar; 2 Talde Mistoa;
2 EA

Votos en contra: 5 (4 PNV-
EAJ; 1 PSE-PSOE)

Abstenciones: 0

De conformidad a lo dispuesto
en el art. 100,2 del RD 2568/1986
de 28 de noviembre se procede a
realizar una segunda votación

Votos a favor: 5 (1 EB-
Berdeak/Aralar; 2 Talde Mistoa;
2 EA

Votos en contra: 5 (4 PNV-
EAJ; 1 PSE-PSOE)

Abstenciones: 0

Como persiste el empate,
decidirá el voto de calidad del
Presidente:

Lehendakariak alde bozkatzen du.

El Presidente vota a favor.

**FAMILIAKO KIDEREN
BAT E.A.E. KANPOKO
ESPETXEREN BATEAN
DUTEN PERTSONENTZAT
2009. URTERAKO
GARRAIORAKO
DIRULAGUNTZAK
ONARTZEA.**

**APROBAR LAS AYUDAS
ECONOMICAS DE
TRANSPORTE PARA
FAMILIARES DE
PERSONAS INTERNAS EN
CENTROS
PENITENCIARIOS FUERA
DE LA C.A.V. PARA EL AÑO
2009.**

Laugarren puntua: Talde mistoak aurkeztutako mozioa: **LAN OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA**, Andoni:

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Mozioa bera irakurriko dut:

Apirilaren 28a Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna dugu. Lan segurtasun eta osasunaren defentsan erreferentea da eta, eskubide hau urratuta dugun heinean, aldarrikapen eta borroka eguna ere bilakatu behar dugu.

Euskal Herria bezalako herri txiki batean eskandalu hutsa da enpresetan urtero-urtero izaten diren istripu, gaixotasun eta heriotza datuak; urtez urte 135.000 istripu inguru, 100 heriotza baino gehiago, lan gaixotasun baten ondorioz hiltzen diren milaka langile eta bizitza osorako ezintasun iraunkorraz beste horrenbeste geratzen dira.

El 28 de abril se celebra el Día Internacional de la Salud Laboral. Al ser un referente en la defensa de la seguridad y la salud en el trabajo, en la medida que se quebranta este derecho, debemos convertirlo en un día de reivindicación y lucha.

En un país tan pequeño como Euskal Herria es un escándalo la cantidad de accidentes laborales, enfermedades y muertes en el trabajo; unos 135.000 accidentes al año, más de 100 muertos, miles de trabajadores que mueren a consecuencia de enfermedades laborales y otros tantos que se quedan con invalidez permanente para toda la vida.

2007. urtean lan istripuetan hildakoak 125 izan ziren; 2008. urtean 112 eta aurten, jadanik, eta datu hau apirilekoa da, 20 langile hil dira seguru asko zoritxarrez, honezkero, hemendik gora joana izango dira hildako kopurua.

Datu hauek izugarrikoak dira. Azken finean, langile hauek euren bizibidea eta familia ateratzen galdu dute bizitza. Gure gizarte garatu honetan, ditugun aurrerapen teknologiko guztiekin, datu hauek onartezinak dira. Horregatik, arazo sozial handi baten aurrean gaude.

Lan egiten dugunon segurtasuna minimoki ezin badugu bermatu, zerbait larria gertatzen ari da gure gizartean. Eta ezinbestekoa da arazo sozial honen oinarrietara jotzea. Azken urte hauetan lan antolaketan eredu berriak martxan jartzen ari dira. Besteak beste, malgutasun handiagoa eta lan erritmo intentsiboagoak. Hauek langilearen nekea handitu eta arreta galtzera eramaten dute, eta lan istripua edukitzeko arriskua handitzen da. Hau da, langilearen esplotazioa handitzen den heinean, lan-istripuaren probabilitatea biderkatu egiten da.

Lan-istripuen atzetik bi arrazoi nagusi daude. Alde batetik,

En 2007 murieron 125 trabajadores en accidentes laborales; en 2008 fueron 112, y en lo que va de año han muerto ya 20 trabajadores.

Estos datos son estremecedores. En definitiva, esos trabajadores han perdido su vida luchando por ganarse el sustento y el de sus familias. En esta sociedad desarrollada que vivimos, con todos los adelantos tecnológicos que tenemos, esos datos son inaceptables. Por lo tanto, nos encontramos ante un gran problema social.

Si no podemos garantizar mínimamente la seguridad de los trabajadores, es señal de que algo grave pasa en esta sociedad. Por eso, es imprescindible ir a las raíces de este problema social. Estos últimos años se están poniendo en marcha nuevos modelos de organización en el trabajo, entre otras cosas mayor flexibilidad y ritmos de trabajo más intensos. Eso conlleva aumentar el cansancio de los trabajadores y la pérdida de atención, lo que supone un mayor riesgo de que se produzca un accidente laboral. Es decir, a medida que crece la explotación de los trabajadores, se multiplica la probabilidad del accidente laboral.

Detrás de los accidentes laborales hay dos causas principales. Por una

enpresariak etekina ateratzeko grina beste edozein helburuen gainetik jartzen dutelako. Sarritan aipatzen da segurtasunean gastatzen dena ez dela kostua, inbertsioa baizik. Zoritxarrez, gauzak ez dira horrela izaten, batez ere, enpresari askok epe motzeko etekin ekonomikoari begira daudelako. Eta asmo onak albo batera gelditzen dira, tartean lan osasuna, ahalik eta etekin borobilenak lortzeko.

Eta bestetik, Euskal Herrian dugun arazoa gure Lan Harremanetarako Esparru propioa eraikitzeko, bi Estatuaren inposizioari aurre egiteko. Hori ezinbestekoa dugu gure lan harremanak antolatzeke, lan erreformei aurre egiteko eta bide batez lan istripuak gutxitzeko.

Hori horrela izanik, Udaltzaren Osoko Bilkura honek ondorengo adierazpena egiten du:

1.- Lan istripuei aurre egiteko lan harreman eta prebentzio eredu ezberdinak beharrezkoak dira; osasuna, negozioaren orde, eskubidea eta lehentasuna izan dadin, arriskuei eta kalteei aurre egiteko eredu publiko, unibertsal, kalitateko eta parte-hartzailea aldarrikatu behar dugu.

2.- Udaltzaren honek ez du inolako obra edo zerbitzurik kontratatuko,

parte, el ansia de los empresarios de obtener beneficios se antepone a todo lo demás. Se dice a menudo que lo que se gasta en seguridad no es costo sino inversión. Desgraciadamente, las cosas no suelen ser así, sobre todo porque muchos empresarios sólo miran a los rendimientos económicos a corto plazo. En consecuencia, las buenas intenciones quedan aparcadas, entre ellas la salud laboral, para lograr unas mayores ganancias.

Por otra parte está el problema que tenemos en Euskal Herria para construir nuestro propio Marco de Relaciones Laborales y para hacer frente a la imposición de ambos Estados. Resulta indispensable arreglar eso para organizar nuestras relaciones laborales, hacer frente a reformas laborales y de paso reducir los accidentes laborales.

Teniendo en cuenta todo eso, el Pleno de este Ayuntamiento declara lo siguiente:

1.- Son necesarios otros modelos de prevención y otras relaciones laborales para hacer frente a los accidentes laborales; debemos reivindicar un modelo público, universal, de calidad y participativo que prevenga los riesgos y los daños, para que la salud no sea negocio sino un derecho preferente.

2.- Este Ayuntamiento no contratará ninguna obra o servicio

lan arriskuen prebentzioko alorra bete ez duelako, gertaera larri edota oso larriagatik zigortu duten inolako enpresarik.

3.- Udalerrian lan istripu larria gertatu bada, Udalak gertatutakoa argitzeko behar diren bitartekoak jarriko ditu, besteak beste, istripua gertatu den enpresako zuzendaritzarekin bilera bat eskatzea, istripuari buruzko informazio guztia eman dezan.

4.- Lan istripu hori argitzeko bide judiziala irekitzen bada, Udal honek herri-akusazio moduan aurkezteko konpromisoa hartzen du.

a aquella empresa que esté sancionada por incidencias graves o muy graves relacionadas con la prevención de riesgos laborales.

3.- Cuando en el municipio haya ocurrido un accidente laboral grave, el Ayuntamiento dispondrá los medios necesarios para esclarecer lo sucedido, y entre otras cosas, solicitará una reunión con la dirección de la empresa implicada, para así recopilar toda la información relacionada con el accidente.

4.- En el caso de que se abriera una vía judicial para esclarecer dicho accidente, este Ayuntamiento se compromete a presentarse como acusación pública.

Eta bosgarren puntua maiatzean honezkero gaudenez ba.. zentzu askorik ez daukanez ba... bere hortan utziko genuke, beraz hau da Udal Batzak onartu dezan ekartzen dugun mozioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, azkenengo bi urte hauetan zenbat aldiz eskatu dugu gaur bezalako plenoetan, Alkateak gai-zerrendan mozio bat sartzeko asmoa izan da, mesedez, gainontzeko alderdi politiko guztiei asmo horren berri emateko, guk ordezkatzeko dugun talde politiko bakoitzak aukera gutxienez eduki dezan, aurkezten diren mozioei mozio alternatiboak aurkezteko, lau aldiz, bost, sei aldiz, beste hainbeste aldiz Alkateak baietz hala egingo duela agindu digu, baina nonbait Alkateak ez ditu bere aginduak betetzen. Gaurko egunez gogoia ematen dit Zapateroren antza ere hartzen duela esateko gauza batzuetan, ez

dugu irakurri ere egin mozioa, eta gaurko honetan botazioa izan arte geratuko gara, baino hurrengo batetan alde egingo dugu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: En cuanto a la moción, yo acabo de enterarme ahora porque sí es cierto que la he recibo pero en euskera, por tanto, no la había podido leer.

El contenido no me parece mal ni mucho menos lo que ocurre que es algo en la cual es una lástima que tengamos que estar en la calle tanto tiempo en el tema de los accidentes laborales, la lucha es continua por tratar de evitarlos pero hay una serie de condicionantes que son de fuerza mayor que hacen que todo el esfuerzo que hagamos es poco y hasta ahora bastante nulo, por eso, yo creo que todo lo que se puede hacer pues en principio todo lo que he apuntado para ejecutarlo por parte de este Ayuntamiento no se deja de hacer en ninguno de los accidentes que se desarrolla, por lo tanto, no es algo que pueda parecer mal sino que es algo más de lo que ya se ejecuta, pero por desgracia todo esto se tiene que hacer una vez ocurrido el accidente, el problema sería tener la solución antes de que ocurra el accidente y entonces no necesitaríamos esta segunda parte y estaríamos todos mucho más tranquilos y no habría tanto problema con los accidentes y ahora relacionarlo con... si es un marco autonómico o como se quiera llamar o nó, pues no creo que eso sea el problema de los accidentes laborales son otras muchas causas que intervienen y por mucho que sea ó de quien venga la Ley, los accidentes laborales no se producen por una deficiencia de Ley o por quien haya hecho la Ley, sino por otra serie de razones y de motivos y lo demás pues bueno no voy a contestar a M. Eugenia en cuanto al incumplimiento porque no merece la pena, yo creo que se puede tomar en tono jocoso y listo,

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: A nosotros nos parece bien, todos los compromisos que pueda tomar el Ayuntamiento para poder frenar esta lacra, sin más,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Guk aurkeztu dugu eta nola ez gure aldeko bozka,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Guk ere aldeko bozka emango dugu, lehendabizi onartua dela, bueno barkatu utzi didazu igual bukatzen eta lehendabizi onartua dela, onartuta daukagula eta plenoan deialdiaren aurretik bidali beharreko zerbait dela norbaitek zerbait aurkeztu nahi baldin badu.

Hala eta guztiz ere, oker ez baldin banago, igual hanka sartuko dut, baina oker ez baldin banago hori eskatu zenetik edo esan zenetik aurrengo aldia da hori gertatzen dena, plenoaren deialdiarekin batera hori egitea. Eskaerak, noski izan direla baina, hombre, hain zuzen ere aurreko legealdian denak horrela izaten zirelako, pozten naiz jakitea zer den oposizioan egotea eta informazioa iristea, iristen den bezala, baina hori horrelako posizio vehementearekin M. Eugenia ez etorri, ze... zuk konkretuki Alkatea zinenean horixe egiten zenuen, o sea que... horrelako posizio vehementiak, eta Zapateron aldekoak, eta Alkateak esan du, eta gutxienez, hombre, esatea ondo dago, baino formak gorde itzazu porque zu ez zara precisamente la más adecuada hori esateko, forma horietan behintzat, orduan, en fin, nik nerea onartzen dut, baino gauzak diren bezala ere esan beharra daude,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ez dut uste formak galdu ditudanik, eta usten dut oso suabe-suabe jokatu dudala eta esan beharrekoak tonon onean esan ditudala; oposizio lanak oposizio lanak dira, hain zuzen, egia da, hori da daukagun papera, beste batzuk oposizioan egon zaretenean paper hori jokatu duzue iruditu zaizuen ondoen, iruditu zaizuen modura; kontua da lehenago esan dudana bezala ez behin eta ez bitan ere, dextente aldiz eskatu dugula eta badagoela alde bat azken bi urte hauek aurrekueiko markatzen dutena eta da batzuek bestean egiten diren plenotan, azkoz mozio gehiago aurkezten direla eta mozio gehin-gehienek iturri gobernu kide bat dela eta gauza guzti horiek kontutan izan da, gauzak berdintsu izan daitezke edo erabat desberdin, norberak hartu nahi dituen bezala, baina hemen gauza bat egia da eta da hitza eman da zeneukazutela, zuk

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Lehendabizi onartzen dut hala dela eta onartu dut.

Bigarren kantitateak ez du kalitatea deusezten, nahiz eta kantitate gehiago izan, zuek erreklamatzeko duzuenak ez dauka zer ikusi kantitatearekin, bueno... eta nik ez dizut esan zuk formak galdu dituzunik, esan dut vehementegia izan zarela eta oker ez baldin banago esan duzue aurrengo...

azkenengo aldia izango dela hemen iraungo duzutena eta bestela hurrengoan aldegin egingo duzuela, hori, esaten ari nintzen, postura vehemente hori, ez zure formak, ez zure formak galtzeak, hori ez dut esan

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Vehementea gauza bat da, eta tinkoa beste bat, ez dakit zer dagokion,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Hain zuzen hori kritikatu dut, Andoni?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Nik bakarrik komentatu nahiko nuke, agian beste mozio batzuk aurkezten direnean, ba... egutegiarekin zer ikusirik ez daukatenak edo beste gai batzuren harira datozenak ba... ulergarria izan daitekeela beste alderdi batek gai horren inguruan zerbait esateko, beharra edo gogoia edo bere aportazioa egiteko, aukera emateko ba... lehenagotik ba... pasatua izatea, baino, apirilaren 28a guztiori berdin iristen zaigu, ez?

26a eta 27a lehenagotik egoten dira eta martxoan ere lehenagotik egoten da, guztiok dakigu apirilaren 28an ze egun dugun eta zer erreibindikazio egiten diren eta bakoitzak gai honen inguruan zerbait esan nahi baldin badu, badaki zer egin behar duen eta nik ez dut uste beste norbaitek mozio bat aurkeztearen zain egon behar duenik, ah... ba... nik badaukat honen inguruan zerbait esateko, baizik eta apirilaren 28aren aurrean, beste data batzuk ere egon badaudenez, ba... bueno azkenean rekurrenteak izango dira, azkenean irudipena edukienez gertatuko gertatuko duela, baino egingo ez balitz oraindik eta gutxiagoko balioko luke, denboraren poderioz gai desberdinetan aurrera egingo dugu, ba.. insistenzi edo konstantzi bat egon baldin badago, baino nioen bezala apirilaren 28an guztiok egutegian markatua daukagu berdin, eta horren inguruan ere zerbait esan nahi baldin badugu esatea daukagu, besteak esango duten edo ez, esperoan egon gabe, esan eta kitto.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu, baina ez gara hitzegiten ari, mozio konkretu honetaz, ezta ere gai konkretu batetaz, ari gara mozio eta mozio alternatiboen konzeptuaz. Mozio alternatiboak aurkezten dira beti aurretiaz aurkezten den mozio baten aurrean, eta are gehiago da hori horrela, datak aipatzen dituzunez, ba... egunez kanpo egiten diren ezohiko plenoetarako,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Hala ere Jon, zerbait esan nahi zenuen, ez? Iruditu zait, esan, esan,

JON GIL BELTZA JN.: Ez bozkatu baino lehen, idazkaritzatik adieraztea, edozein udalaren portaera edo aldaketa bat kontratazio publikoari buruz, ba... ikertu egin beharko direla tokatuko diren pleguetan.

Bueno esaten ari naiz, zuen erabaki bat, zuek orain bozkatuko duzuten erabakietan ondorio juridikoak baldin badaude, ba... kontratazioko espedientetan agertu beharko direla, ezer gehiago.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eskerrik asko, Besterik gabe bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Abstentzioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Abstentzioa, PSOE?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Alde, Ezker-Batua Aralar?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Alde, Talde mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Alde eta guk ere Alde,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 botu (1
PSOE; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2
Talde mistoa; 2 EA)

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 votos (1
PSOE; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2
Talde mistoa; 2 EA)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 4 (PNV-EAJ)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 4 (PNV-EAJ)

**LEHENENGOA: TALDE
MISTOAK
AURKEZTUTAKO MOZIOA
ONARTZEA: LAN
OSASUNAREN NAZIOAR-
TEKO EGUNARI
DAGOKIONA,**

**PRIMERO: APROBAR LA
MOCION PRESENTADA POR
EL GRUPO MIXTO: DIA
INTERNACIONAL DE LA
SALUD LABORAL,**

Eta bukatutzat ematen da gaurko Plenoa,

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortzirik hamar gutxi direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

Alkateak,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las diecinueve horas cincuenta minutos y yo la Secretaría doy fé,

Idazkariak,